



KALITATE BEREZITUKO KONTROL SISTEMAREN 2015eko TXOSTENA KB

2015. urtean nekazaritzako elikagaien kalitatearen 12 ikuskapen egin zitzaizkion in situ Euskal Okela Adierazpen Geografiko Babestuari (AGB). Gernikako Piperra Adierazpen Geografiko Babestuari eta Urdaiazpiko Serranoaren Espezialitate Tradizional Bermatuaren barnean bildutako bi operadoreei ez zitzaien ikuskapenik egin.

TAULA. EGIAZTAPEN PROGRAMA BETETZEA						
AGB/JDB	PROGRAMATUTAKO EGIAZTAPEN KOP.		EGINDAKO EGIAZTAPEN KOP		EGIAZTAPEN PROGRAMAZIOAREN BETETZEAREN %	
	AGIRIZKOAK	IN SITU	AGIRIZKOAK	IN SITU	AGIRIZKOAK	IN SITU
Gernikako Piperra	-	-	-	-	-	-
Euskal Okela	14	-	12	-	-	85,71%
Guztira	14	-	12	-	-	85,71%

AGB Gernikako Piperra / Pimiento de Gernika:

Barne-aurkakotasuneko epean oharririk jaso ez denez, Gernikako Piperra Adierazpen Geografiko Babestuaren baldintza-agiria aldatzeko eskaera Europako Batzordean aurkeztu da 1151/2012 EB Erregelamenduaren arabera onar dadin, PGI-ES-02122 erreferentzia-zenbakiarekin.

AGB Euskal Okela / Carne de Vacuno del País Vasco.

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak egindako egiaztapenetan adostasunik eza arin bat atzeman zen etiketa-akatsengatik, eta horrela jakinarazi zaio interesdunari, neurri zuzentzaileak aplikatu ditzan.

Fundación HAZI Fundazioak bi Adierazpen Geografiko Babestuen operadoreetan egindako kontrolen emaitzak honako hauek dira:

	Unibertsoa	Kontrolatutako unibertso osoa	Ez-betetzeak dituzten operadoreen guztizko kop.	Irregularatasun kop.	Arau-hauste kop.	Ez-betetzeen guztizko kop.	Ez-betetzeak dituzten operadoreen ehunekoa	Ez-betetzeen indizea, ez-betetzeak dituzten kontrolatutako operadoreen arabera	Ez-betetzeen ehunekoa, ez-betetze motaren arabera	
	A	B	C	D	E	F= (D+E)	G= (C/ B X100)	H= (F/ C)	I= (D/Fx100)	J= (E/Fx100)
PAÍS VASCO EUSKAL OKELA	222	260	9	8	1	9	3,46	1	88,89	11,11
PAÍS VASCO GERNIKAKO PIPERRA	9	9	0	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	231	269	9	8	1	9	3,35	1	88,89	11,11

Atzemandako bederatzi ez-betetzeetatik bati soilik zegokion arau-haustea, eta zuzendu ez zenez, marka erabiltzeko aukera kendu zitzaion. Gainerako ez-betetzeen kasuan, operadoreek ezarritako ekintza zuzentzaileak egokitzat hartu ziren. Kasu batzuetan, jarraipen administratiboa egin zen eta beste batzuetan, bisita.

Atzemandako ez-betetzeak etiketa-akatsengatik, marka gaizki erabiltzeagatik, balantzarekiko komunikazio ezagatik, identifikazio okerragatik eta trazabilitate ezagatik izan ziren.

Aurreko kanpainarekin alderatuta, ez-betetzeen kopurua pixka bat gutxitu egin dela ikus daiteke, 17tik 9ra (8 irregulartasun eta arau-hauste 1).

Urdaiazpiko Serranoaren Espezialitate Tradizional Bermatua.

Kontrol erakundeek Espezialitate Tradizional Bermatuaren bi operadoreen gainean egindako kontrolen emaitzak honako hauek dira:

Urdaiazpiko Serranoaren Espezialitate Tradizional Bermatuaren Kontrol eta Ziurtapen Erakundeen Erregistroan erregistratutako bi kontrol erakundeek (“Certifood, SL” eta “Eurofins Análisis Alimentario, SLU”) dagozkien operadoreak kontrolatu dituzte baina ez dute adostasun ezarik aurkitu.

	Unibertsoa	Kontrolatutako unibertso osoa	Ez-betetzeak dituzten operadoreen guztizko kop.	Irregulartasun kop.	Arau-hauste kop.	Ez-betetzeen guztizko kop.	Ez-betetzeak dituzten operadoreen ehunekoa	Ez-betetzeen indizea, ez-betetzeak dituzten kontrolatutako operadoreen arabera	Ez-betetzeen ehunekoa, ez-betetze motaren arabera	
	A	B	C	D	E	F= (D+E)	G= (C/ B X100)	H= (F/ C)	I= (D/Fx100)	J= (E/Fx100)
Urdaiazpiko Serranoaren Espezialitate Tradizional Bermatua	2	2	0	0	0	0	0	-	-	-